MIGRAZIO ETA ASILO EUSKAL FOROA

FORO VASCO DE MIGRACIÓN Y ASILO

# MEMORIA 2022
# MIGRAZIO ETA ASILO EUSKAL FOROA
# FORO VASCO DE MIGRACION Y ASILO

*Osoko bilkura, 2022ko abenduaren 16*

*Sesión plenaria, 16 de diciembre de 2022*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
Gizarte Politiketako Sailburuordetza
*Migrazio eta Asilo Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES
Viceconsejería de Políticas Sociales
*Dirección de Migración y Asilo*

**MEMORIA 2022**
MIGRAZIO ETA ASILO EUSKAL FOROA

## Hitzaurrea

Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroaren helburua da hainbat alderen arteko hausnarketarako eta koordinaziorako gune bat izatea -gizarte-eragileen, gizarte-erakundeen eta erakunde humanitarioen, sindikatuen, enpresaburuen, erakundeen eta administrazio publikoen artekoa- biztanle atzerritar eta errefuxiatuak integratzeko konpromisoa duten alderdi guztien artean lan eraginkorragoa lortzeko.

Horretarako, Foroak hainbat neurri proposatzen ditu, jatorri ezberdinetako jendea elkarrekin bizitze hutsa lagungarri izan dezagun, gizarte osoa aberasteko, bizikidetza aktibo bihurtuta.??? Ahalegin guztiak koordinatzen asmatu behar dugu. Horretan asmatuz gero, herritartasun zibikoaren kontzeptuari taxua emango diogu eta herritartasun arduratsua erdietsi genezake, hau da, gure gizartean herritar denek izango dituzten eskubide eta betebeharrak, edozein jatorrikoak direla ere..

Foroa tresna operatiboa izateko sortu da, eraginkortasun-irizpidea bete beharrez, eta hasiera-hasieratik lehentasunezko kontua izan da Batzordeak elkarrekin koordinatuta lan egitea. Batzorde Iraunkorraren eginkizun nagusia da batzordeen lana bultzatzea, horretan egiten du lan, Idazkaritza Teknikoarekin eta Koordinazioko Idazkaritzarekin batera. Osoko Bilkurak, bestalde, batzordeen lana biltzen du, organo paritarioa eta formala den aldetik. Osoko Bilkurako akordioen bidez mamituko dute elkarrekiko konpromisoa Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek eta gizarte-eragile, gizarte-erakunde, erakunde humanitario, sindikatu eta enpresaburuek, jatorri atzerritarren nahiz errefuxiatuen integraziorako eta bizikidetzarako neurriak ezartzeko denen artean.

Hauek dira Foroaren helburuak eta xedeak:

a. Atzerritar jatorriko jendea integratzea, hau da, desberdinen arteko egokitzapena bideratzea (noranzko biko integrazioa).

b. Foroan parte hartzea, ekarpenak eta proposamenak batzeko gune izan dadin, sinetsita gaudenez immigrazio-politikak herritarren iritzia kontuan hartu behar duela.

c. Den-denak berdin izatea eskubide eta betebeharrei dagokienez, horrek horrela izan behar baitu, ezinbestean, herritartasun arduratsua eratuko badugu.

Migrazio eta Asilo Foro[1] honek aurreko foroaren lekua hartuko du, Herritar Migratzaileen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroarena (2002an sortu zen hura, abuztuaren 30eko 200/2002 Dekretuaren bidez). Aldaketa horrek bi gai nagusirekin du zerikusia. Alde batetik, migrazio-mugimenduen bilakaerakin eta horrek gure gizartea eraikitzeko gizarte-prozesuetan dituen ondorioekin. Errealitate berria sortu zaigu pasarako migrazioaren fenomenoagatik,

[1]Une honetan, onartzeko prozesuan dago Migrazio eta Asilo Foro berria eratzen duen Dekretua.

nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen kopurua handitzeagatik, klima-aldaketaren ondorioengatik eta horrek joan-etorrietan duen eraginagatik, eta familia-erreferenterik gabeko adingabeen eta gazteak ugaritzeagatik. Errealitate berria sortu zaigu horregatik guztiagatik, eta erronka berri eta saihestezinak dauzkagu orain.

Eta erronka horiek erakusten dute landu beharreko beste kontu bat: ia hogei urte igaro direnez, kontsulta-organo hori eguneratzeko beharra daukagula dagoeneko. Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Planaren (2018-2020) ebaluazioaren esparruan hausnarketan luze eta kontrastatuz jardun ondoren etorri da hau guztia, eta Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana (2022-2025) egin ondoren, biak Eusko Jaurlaritzarenak.

Aurreko foroarekiko aldaketa nagusiak honako hauek dira:

1. Batzordeen kopurua handitu egin da, Asiloko Lan Batzordea eta Euskararen eta Hizkuntza Aniztasunaren Lan Batzordea sortu direnez gero.

2. Koordinazio Idazkaritza bat eratu da, foroaren lana arintzeko eta berritzeko, funtzionamendua harmonizatzeko (organo operatiboen arteko koordinazioa eta komunikazioa azpimarratuz) eta egindako jarduerak ezagutarazteko.

3. Sinplifikatu egin da lan-batzordeetan sartzeko prozesua, migrazioen eta aniztasunaren eremuan lan egiten duten gizarte-eragile eta -erakundeek parte-hartze eta ordezkaritza handiagoa izan dezaten.

Era berean, Foroak egiten duen lana hedatzeak duen funtsezko garrantziari buruz jardun da. Igaro diren urteak gorabehera, eta sektore oso zehatz batetik kanpo, Foroa ezezaguna da oraindik ere euskal gizartearen zati handi batentzat. Ildo horretan, web orri bat sortzeari ekin zaio, Foroaren batzorde bakoitzak egindako jarduerak eta lanak zabaltzeko eta komunikatzeko. Halaber, Fororako logo propio eta original bat diseinatu da. Kanporanzko dibulgazio-lan horrek barrurantz ere izango du eragina, Foroaren nortasuna bera indartuko baitu.

# BATZORDEEN LANA

## Harrera eta Bizikidetza Batzordea

Osaera: Lidia Barrutia (Zuzendaritzako teknikaria), GOIZTIRI Elkartea, Harresiak Apurtuz-ACCEM, Mugarik Gabeko Emigratuak, CEAR Euskadi, Gurutze Gorria, FEDAIB, Kolore Guztiak (koordinazioa), Bilboko Udala.

Bilerak: otsailaren 11n, martxoaren 11n, maiatzaren 9an, irailaren 12an, urriaren 24an eta azaroaren 10ean.

Egindako lana:

1. BEGIRUNE Fundazioak koordinatutako batzorde batek prestatutako "Euskal Harrera Eredua" dokumentua berrikusi, zehaztu eta osatzea. Behin betiko dokumentu bat badago sortuta (**Herritartasun, Immigrazio eta Asiloari buruzko Kultura arteko VI. Planaren 4.1.2 neurria**).
2. Batzordeak BILTZEN elkarteari eta Ikuspegiri eskatu zien 2022ko urriko Immigrazioari buruzko Jardunaldietan harreraren gaia ere lantzeko. Eskaera egin ondoren, batzordeak jardunaldien programa egiten lagundu zuen, eta hitzaldietarako eta mahaietarako hainbat aditu eta ekitaldia garatzeko hainbat metodologia proposatu zituen (zerbait galdetu nahi izanez gero, jo Lidia Barrutiarengana: l-barrutia@euskadi.eus )

   Jardunaldiak urriaren 20an eta 21ean egin dira, «Harrerarako eta inklusiorako bidean» izena jarrita. Programa hemen kontsulta daiteke: https://www.ikuspegi.eus/documentos/material_jdas/programa_jdas2022.pdf#page=2

3. Harrerako barne-jardunaldi bat prestatzea eta antolatzea, eta haren dimentsio komunitarioak, hainbat esperientziaren bidez. Ekainaren 20an, Urduñan, Harrera Komunitarioko Esperientzien II. Jardunaldi Teknikoa egin zen. ZAPALAN (Urduña), EKIN EMAKUMEAK (Arrasate), AGHARAS (Barakaldo) eta DARKUM elkarteek (Donostia) hartu zuten parte.

   Jardunaldiko ikasbideak eta bestelako edukiak testu batean daude bilduta. Beste ezer jakin nahi izanez gero, jo Lidia Barrutiarengana: l-barrutia@euskadi.eus ).

## Berme juridikoen batzordea

Osaera: Unai Aspuru (Zuzendaritzako teknikaria), CITE Bizkaia (CCOO), Profesionales Residentes en el País Vasco Elkartea, Indoamerika Herria Elkartea, SOS Arrazakeria (koordinazioa), BIDEA EGINEZ, Gurutze Gorria, Bilboko Udala, Biltzen.

Bilerak: otsailaren 16an, apirilaren 13an, ekainaren 15an, irailaren 16an eta azaroaren 8an.

Egindako lana:

1. Ikastetxe batzuetan arazoak dituztenez jatorri atzerritarreko ikasleak matrikulatzeko, erroldatuta ez daudelako, horri buruzko txosten bat prestatu dugu (beste ezer jakin nahi izanez gero, jo Unai Aspururengana: u-aspuru@euskadi.eus ). Txostena prestatzeko prozesuan, Ikuspegi gonbidatu genuen saioetako batera etortzeko, oraintxe amaitzear baitauka Euskadiko erroldari eta atzerritar jatorriko biztanleen egoerari buruzko azterlan bat.
2. 2023ko ekitaldirako, batzordeak bi lan-ildo ditu planteatuta:
    a. Foroko batzorde denek kezka dutenez kontu honegatik, txosten bat egingo da atzerritar jatorriko biztanleek banku-kontu bat irekitzeko dituzten zailtasunek eragiten dituzten arazoei buruz (**Herritartasun, Immigrazio eta Asilorako VI. Kultura arteko Planaren 4.3.7.5 neurria**).
    b. Unibertsitateko nahiz unibertsitatez kanpoko bekei eta bekei buruzko araudiari (batez ere betekizunei) buruzko txostena prestatu dugu, ikusirik atzerritar jatorriko pertsonen eskubideak urra ditzaketela.

Batzordearen egoera:

Gurutze Gorria, Bidea Eginez eta Vitoria-Gasteizko Udala sartu dira.

## Partaidetza, Kultura eta Sentsibilizazio Batzordea

Osaera: Aitor Eguinoa (Zuzendaritzako teknikaria), Bilboko Udala, Mugarik Gabeko Emigratuak, Gurutze Gorria, JATORKIN (koordinazioa), Biltzen, Clara Campoamor, ACCEM, TOPAGUNEA, Gasteizko Udala, Arabako Foru Aldundia.

Bilerak: otsailaren 22an, maiatzaren 3an, ekainaren 29an, irailaren 13an eta urriaren 22an.

Egindako lana:

1. 2021az geroztik, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan euskara ikasteko dauden baliabideak biltzeko lana egin du batzordeak. Materialak dagoeneko prest daude, eta Biltzenen webgunean jarri ditugu, zabaltzeko. Hemen kontsultatu daitezke: https://labur.eus/mJimB (euskara) y https://labur.eus/mJimB (castellano).
2. Euskadin jatorri atzerritarreko jendearen elkarte-sarearen egungo egoera ezagutzeko beharra hauteman dugu, azken azterlan eta ikerketak 2010ekoak baitira. Horregatik, batzordeak Euskadiko atzerritar jatorriko asoziazionismoari buruzko ikerketa egiteko proposamena egin eta aurkeztu du (hiru lurraldeetan jarduten duten eragileak, elkarteen egoera, lan-eremuak, indarguneak eta ahuleziak eta abar aztertzeko).

   Balizko ikerketa horren abiapuntua Biltzenek aniztasunaren eta bizikidetzaren esparruan lan egiten duten atzerritar jatorriko pertsonen elkarteei buruz egindako direktorioa/katalogoa izango litzateke.

3. 2023an Euskadin udal- eta foru-hauteskundeak izango direla-eta, Batzordeak dokumentu bat egin du, EBko herrialdeetatik edo Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetatik datozen atzerritar jatorrikoek botoa emateko jarraitu beharreko prozesua azaltzeko. 5 hizkuntzatan jarri da dokumentua. Beraz, atzerritar jatorriko pertsonen parte-hartze politikoa indartzeko mekanismo bat da (**Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planaren 4.3.7.6 neurria**).
   Dokumentua burutzeko, EUDELekin batera jardun gara lanean. Dokumentuaren edukia adosteaz gain, helburua da EAEko udalerri guztietara iristea eta guztiek informazio bera zabaltzeko modua egotea. Horretarako, lan-bilera bat egin dugu Eudeleko langile batzuekin: Alma Mororekin (komunikazio-arduraduna), Eukene de Miguelekin (berdintasun-teknikaria) eta Dorleta Goibururekin (Gizarte Zerbitzuen arduraduna).
   Halaber, prentsaurreko bat egin dugu abenduaren 7an, kanpainaren berri emateko.
4. Euskadiko atzerritar jatorriko pertsonen baliabide artistiko eta kulturalak hobeto ezagutu behar direla ikusi dugu. Lehendabizi, batzordearen *drive*-ean espazio bat irekitzea dugu, baliabide artistikoen gida bat sortzeko.

Batzordearen egoera:

Zuzendaritzari jakinarazi zaio Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko ordezkariren bat behar dugula Batzordean.

## Lan-batzordea

Osaera: Unai Aspuru (Zuzendaritzako teknikaria), Arabako Gurutze Gorria (koordinazioa), CITE (CCOO), Indoamerika Herria Elkartea, Profesionales Residentes en el País Vasco Elkartea, Elkarte Afroamerikarra, Confebask, UGT, Prestaturik, SARTU-Araba, Gizakia Fundazioa, Biltzen, Lanbide.

Bilerak: otsailaren 17an, apirilaren 5ean, ekainaren 2an (ezohikoa), ekainaren 28an, irailaren 15ean (ezohikoa), urriaren 4an, azaroaren 3an (ezohikoa) eta azaroaren 7an (ezohikoa).

Egindako lana:

1. Lanbide Heziketaren Antolamenduari eta Integrazioari buruzko martxoaren 31ko 3/2020 Lege Organikoa onartu eta gero batzordean agertutako kezketatik abiatuta, proposamen-dokumentu bat egin dugu lege berri horrek migratuentzat ekar dezakeen egoera jakinarazteko. Oro har, enplegurako prestakuntzaren antolaketan eta kudeaketan izan diren aldaketetatik abiatuta, migratzaileei arreta ematearen garrantzia nabarmendu dugu, integralitatea bultzatuz prestakuntza- eta lan-ibilbideei dagokienez.
   (Kontsulta egiteko, hitz egin Unai Aspururekin: u-aspuru@euskadi.eus ).
2. 2017ko abenduaren 31n akordioa lotu zuen Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluak, mendetasun-sisteman integratzen diren zaintza-zerbitzuak profesionalizatzeko arauak eta epeak ezartzeko, eta sistema horrek hainbat eremutan dituen ondorioak ere. Horren harira, batzordeak dokumentu bat egin du, eta bertan jaso ditu etxeko enpleguaren sektorean lan egiten duten atzerritar jatorriko pertsonen enplegagarritasuna eta lan-baldintzak hobetzeko proposamen zehatzak (**Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planaren 4.1.4.5 neurria**). Dokumentua kontsultatu nahi izanez gero, jarri harremanetan Unai Aspururekin: u-aspuru@euskadi.eus

Batzordearen egoera: Bidez-bide elkartea ere batu zaio.

## Hezkuntza Batzordea

Osaera: Aitor Eguinoa (zuzendaritzako teknikaria), JATORKIN, ZEHAR, Biltzen, SOS Arrazakeria, Egintza, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Matiz.

Bilerak: otsailaren 15an, apirilaren 8an, ekainaren 23an, irailaren 15ean eta urriaren 27an.

Egindako lana:

1. Batzordeak, Hezkuntza Sailarekin alderatuta eta Eusko Jaurlaritzaren webguneko informazioan oinarrituta, hezkuntza-sistemari buruzko informazio-triptikoak prestatu ditu. Helburua da familiei informazio egiazkoa, espezifikoa eta hurbilekoa ematea. Gainera, nazioz gaindiko ikuspegia ere txertatu dugu, hau da, informazio hori jatorrira eraman nahi dugu, hangoek hasiera-hasieratik izan dezaten informazio hori. Baliozkotze- eta diseinu-prozesuan dago.
2. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako norbait bertaratzea eskatu dugu Eusle programaren esperientzia pilotua aurkezteko: nolakoa izan den ebaluazioa, zer ikastetxetara zabaldu den, eta, egungoari dagokionez, Ukrainatik datozen ume errefuxiatuak eskolatzeko erabiltzen ari den. Ekainaren 23an, Hezkuntza Sailak EUSLE esperientzia pilotua aurkeztu zion Batzordeari, egindako galdera guztiei erantzunez. Jardunaldiari buruzko txosten labur bat prestatu dugu (Kontsultatzeko, jarri harremanetan Aitor Eguinoarekin: a-eguinoa@euskadi.eus ).
3. Familien eta eskola-komunitatearen arteko harremanen esparruan (ikastetxeak, guraso-elkarteak, bertako familiak, etab.), ikuspegi errotua, behetik gorakoa, izateko beharra hauteman dugu. (**Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planaren 4.3.1.1 neurria**). Horretarako asmoz:

   a. Batzordea osatzen duten erakundeek beren kontaktuen artean zabalduko duten galdetegi bat prestatu da atzerritar jatorriko familientzat, ahalik eta laginik zabalena izateko eta gai horren inguruko errealitatea ezagutzeko (Kontsulta egiteko, jarri harremanetan Aitor Eguinoarekin

   : a-eguinoa@euskadi.eus ).

   b. Gonbidapena egin zitzaion Elkarrekin kooperatibari -Ikerketa eta gizarte-ekintzako kooperatiba-, "Ongi Etorri Eskolara" proiektua garatzen duena. Proiektu horrek kulturartekotasuna lantzen du eskolan, zeharka: ikasleekin, irakasleekin, familiekin eta komunitate-eremuarekin. Urriaren 17an bildu ziren batzordearekin, eta proiektuari buruzko informazio guztia azaldu zuten: egitura, edukiak, metodologiak, emaitzak, etab.
4. Testu txiki bat prestatu da, eta gurasoen elkarte adierazgarrienei bidali zaie (uneren batean Batzordeko kide izan direnei), berriz ere parte har dezaten.

Batzordearen egoera:

Matiz Elkartea batu zaio, irailetik aurrera.

Joateari utzi diote: STEILAS, FAPACNE (Arabako itunpeko eskolako gurasoen elkartea), BAIKABA (Gipuzkoako Eskola Publikoko gurasoen elkartea), Denon Eskola Araba.

Berritzegune Nagusiak baja eman du.

## Gizarte Baliabide eta Etxebizitza batzordea

Osaera: Lidia Barrutia (zuzendaritzako teknikaria), Biltzen, Sartu, ACCEM (koordinazioa), Kolore Guztiak, Goiztiri, Etxebizitza Sailburuordetza.

Bilerak: martxoaren 3an, maiatzaren 17an, ekainaren 24an, irailaren 16an eta azaroaren 14an

Egindako lana:

1. Apirilaren 12an, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzako sailburuorde Pedro Jaureguirekin bildu zen Batzordea, Foroari, Etxebizitza eta Gizarte Baliabideen Batzordeari eta Batzordeak egiten duen lanari buruzko informazioa emateko.
2. Bilera horretatik aurrera, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak Batzordea gonbidatu zuen, Etxebizitzaren aldeko 2022-2036 Itun Sozialaren prozesuaren esparruan lankidetzan aritzeko eta parte hartzeko. Honela mamitu da elkarlan hori:
    a. Apirilaren 27ko bileran parte hartu zen, eta etorkizuneko Itunerako proposamenak egiteko dokumentu bat helarazi zitzaion Batzordeari. Dokumentu hori Batzordean landu eta Behatokiari eman zitzaion maiatzean.
    b. Batzordeari gonbidapena egin zitzaion online dokumentu labur bat bete dezan, Behatokiari buruz duen ezagutzari buruz eta Behatokian aktiboki parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko interesari buruz. Urriaren 7an izan zen hori.
    c. Etxebizitza Sailburuordetzak gonbidapena egin zion Batzordeari, azaroaren 30ean egingo den ekitaldi batera joateko, Batzordeak Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialarekin bat egin dezan.
3. Horretaz jardun da Batzordea, aztertzen ea aukerarik baden baliabideen eta gizarte-zentroen direktorio berriaren gainean lan egiteko ( Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza ari da direktorioa prestatzen), migrazioen eremuan aplikagarritasun handiagoa lortzeko, Biltzenekin batera. Une honetan, Direktorio hori berriz egiten ari dira; 2023an ere horretan jarraituko dugu.
4. Etxebideren web-orria errebisatu genuen (https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-etxebide/es/ ) baita Alokabiderena ere (https://www.alokabide.euskadi.eus/gaztelagun/test/ ). Gaztelagun programan (alokairua ordaintzeko laguntza zuzena, 18 eta 35 urte bitarteko gazteei emantzipazioa errazteko laguntza) alokairua ordaintzeko laguntza eskatzeko baldintzei buruz dagoen testa aztertu da. Frantsesera, ingelesera eta arabierara itzuli edo ez aztertu genuen, eta azkenean itzultzeko eskaera egin dugu.
5. Ereduzko mezu elektroniko bat egin da hirugarren sektorean etxebizitzaren arloan egiten ari den lana ezagutzeko. Errealitatearen ezagutza hori lehen urratsa da sinergiak bateratzeko eta elkar hartuta jarduteko konponbideak bilatzen. Posta elektronikoa Foroaren Idazkaritza Teknikoak eta Batzordea osatzen duten gizarte-erakundeek bidaliko dute.
6. Hurrengo ekitaldiari begira, Batzordeak triptiko bat egitea planteatzen du, Euskadin etxebizitza eskuratzeari buruzko informazioa ezagutarazteko. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egindako triptikoa hartuko da erreferentziatzat (**Herritartasun, Immigrazio eta Asiloari buruzko Kultura arteko VI. Planaren 4.3.6.3 neurria**).

Batzordearen egoera:

Batzorde horretan honako erakunde hauei parte hartzeko gonbidapena egitea egokia den ala ez aztertu da: Asociación Solidaridad Vasco Ecuatoriana - ASVE, Arabako Tresna Sozial Globala eta CARITAS.

## Berdintasunerako batzordea

Osaera: Txetxu Franco (zuzendaritzako teknikaria), Bidez Bide (koordinazioa), Harresiak Apurtuz, Haurralde, Matiz, Clara Campoamor, Jatorkin, Emigrados sin Fronteras, FEDAIB, Gurutze Gorria, Zubietxe, Malen Etxea, Biltzen, Bilboko Udala, Emakunde, Bizkaiko Foru Aldundia.

Bilerak: otsailaren 21ean, maiatzaren 5ean, ekainaren 30ean, irailaren 29an, azaroaren 3an.

Egindako lana:

1. COVID-19ak emakume migratuetan duen eraginari buruzko txostena (kontsultatzeko: jl-francolamikiz@euskadi.eus ).

2. Batzordeak Emakunderekin lankidetzan aritzeko aukeraz aritu gara berriz;, bere garaian ezkontza behartuetarako protokolo bat egitekoak ginen, eta kontu horri berriro eutsi behar zaion aztertu dugu. Horretarako, gutun bat idatzi zaio Emakunderi. Gutun horren ondorioz, Emakunderekin harremanetan jarri gara berriz, eta, are, batzordekide egin da.

3. Emakundek jakinarazi du dokumentu sinple eta irakurterraza egin nahi duela ezkontza behartuen, umeen ezkontzen, goiztiarren eta itunduen inguruan, gizarte-erakundeei detekzio-adierazleak eskaintzeko. Dokumentu honetarako batzordearen lankidetza eta kontrastea eskatzen da (**Herritartasun, Immigrazio eta Asiloari buruzko Kultura arteko VI. Planaren 4.1.4.4 neurria**).

4. Elikagaien Bankuko Federazioari zuzendutako dokumentu labur bat idazten ari gara. Batzordeak hilerokorako higiene-produktuei buruz hautemandako beharretatik abiatuta, Federazioari jakinarazi zaio sentsibilizazio- eta bilketa-kanpainetan eragiteko aukera badagoela, produktu horiek duten garrantzia ikusarazteko.

5. Foroko gainerako batzordeetako kide diren pertsonei eta erakundeei zuzendutako generoari eta intersekzionalitateari buruzko prestakuntza diseinatzea planteatu dugu, eta horretan jardun gara. Une honetan, bilera bat egitekoak gara Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko berdintasun-teknikariarekin, proposamenaren bideragarritasuna aztertzeko.

## Osasun-batzordea

Osaera: Patxi de la Fuente (zuzendaritzako teknikaria), Haurralde (koordinazioa), Nos Unimos, Gurutze Gorria, Zehar Errefuxiatuekin, Kolonbia-Euskadi Elkartea, ANESVAD, Munduko Medikuak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, Bilboko Udala.

Bilerak: otsailaren 16an, apirilaren 5ean, ekainaren 7an, irailaren 27an eta urriaren 25ean.

Egindako lana:

1. Atzerritarrek osasun-laguntza eskuratzeko dituzten zailtasunak ikusita, lehen mailako arretako, ospitaleko arretako eta larrialdietako zerbitzuetako administrazio-langileei eta Lehen Mailako Arretako Unitateetako Burutzei (LMAU) zuzendutako prestakuntza diseinatu da (**VI. Planaren 4.3.5.3 neurria**). Batzordeetako kide diren pertsonei eta erakundeei ere eskainiko zaie prestakuntza hori.

2. Aztertzeko gaia: migratuen osasun mentala, pandemian agertu diren egoeretatik abiatuta. Osasun Sailak iragarri du Osasun Mentalari aurre egiteko estrategia berri bat diseinatuko dela, pandemiaren osteko garaiko premiekin bat etorriz. Hori jakin ondoren, Osasun Saileko ordezkariak konpromisoa hartu du Osasun Mentaleko Aholku Batzordeari proposatzeko Foroaren batzordeari espazio bat eman diezaiola, bere ikuspegia eta kezkak helarazteko.
   Batzordeak dokumentu labur bat landu eta osatu du, «Osasun mentalaren diagnostikoa egiteko eta osasun mentalari heltzeko gakoak biztanle migratzailearentzat» izenburupean. Dokumentu hori Osasun Mentalaren Aholku Batzordearen azaroaren 3ko bileran aurkeztu zuen. Komunikazio- eta lan-kanal garrantzitsu bat ezarri du. Egokia izan da oso, eta etorkizunean jarraipena izatea espero dena.

3. Migracovid Sarea: sarearen jardueraren berri eman da, eta uztaileko bileran 2020ko uztailetik 2022ko apirilera bitartean egindako jardueraren memoria orokorra aurkeztu zen. Osasun Sailaren, Osakidetzaren, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren eta Biltzenen eta elkarteen arteko sare-laneko esperientzia oso positibotzat jotzen da.

4. Egoera irregularrean dauden pertsonek Suspertzeko Espazio Soziosanitarioetara sartzeko aukerari buruzko informazioa eskatu dugu. Premia horri erantzuteko eskatuko zaie foru-aldundiei.

5. Osasun Sailaren ekintza hauen jarraipena eta kontrastea egin dugu:

   a. Egoera irregularrean dauden eta erroldatuta dauden pertsonei osasun-txartelak (OTI) ematen ari gatzaizkie. Aurretik, gutun batean jasotako arreta-aintzatespena ematen zitzaien. 2021ean aitorpena eman zitzaienei txartelak bidaltzen hasi gara, bakoitzari bere helbidera.

   b. Osasun Saila jarraibide bat prestatzen ari da atzerritarrek osasun-laguntza jasotzeko aukera izan dezaten. Helburua betekizunak murriztea da; adibidez, erroldatzea frogatu ezin bada, balekoa izan behar luke seme-alabak ikastetxe batean matrikulatuta izatea edo GKE batera aldizkako bisitak erakustea.

   c. Kezka azaldu dugu, atzerritar jatorriko pertsonen berrelkartutako arbasoak doako osasun-aseguramendutik kanpo uzteagatik. Sailak ahalegin bat egin du, baina diru-sarreren atalaseak oraindik oso baxuak direla uste dugu.

## Introducción

El Foro Vasco de Migración y Asilo tiene como objetivo ser un espacio de reflexión y coordinación entre los distintos actores sociales, organizaciones sociales y humanitarias, sindicatos, empresariado, instituciones y administraciones públicas, con el fin de lograr un trabajo más eficaz entre todas las partes comprometidas en la integración de la población de origen extranjero y refugiada.

Para ello, el Foro propone medidas para desarrollar instrumentos que colaboren a que la mera coexistencia de personas de diversos orígenes pueda convertirse en una convivencia activa que enriquezca a toda la sociedad. Solo con la confluencia coordinada de todos los esfuerzos se podrá avanzar hasta llenar de contenido un concepto de ciudadanía cívica como ciudadanía responsable, es decir, formada por ciudadanas y ciudadanos con derechos y obligaciones, independientemente de su origen.

El Foro se crea como instrumento operativo, en cumplimiento del criterio de eficacia, dándose prioridad desde el comienzo al trabajo coordinado de las Comisiones. La Comisión Permanente tiene como función principal colaborar e impulsar el trabajo de las Comisiones, junto con las Secretaría Técnica y de Coordinación. El Pleno como órgano paritario y formal recoge el trabajo de las Comisiones. Sus acuerdos, permitirán el compromiso de las Administraciones Públicas Vascas y de los actores sociales, organizaciones sociales, humanitarias, sindicales y empresariado, para el establecimiento de medidas dirigidas a la integración y a la convivencia de las ciudadanas y los ciudadanos de origen extranjero, así como de las personas refugiadas.

Los objetivos y finalidades últimas del Foro son:

a. La integración de las personas de origen extranjero, entendiendo por tal la adaptación entre diferentes, es decir, una integración de carácter bidireccional.

b. La participación en el Foro, como espacio en donde sumar aportaciones y propuestas, desde el convencimiento de que la política en inmigración debe tener en cuenta la opinión de la ciudadanía.

c. La igualdad de todas las personas en derechos y deberes, un reconocimiento que es previo para articular una ciudadanía responsable.

Este Foro de Migración y Asilo[2] ha venido a sustituir al antiguo Foro para la Integración y Participación Social de las Ciudadanas y Ciudadanos migrantes que se creó en el 2002 (Decreto

[2] En estos mismos momentos se encuentra en proceso de aprobación el Decreto que constituye al nuevo Foro de Migración y Asilo.

200/2002 de 30 de agosto). Este cambio tiene que ver con dos cuestiones principales. Por una parte, el propio devenir de los movimientos migratorios y sus efectos en los procesos sociales de construcción de nuestra sociedad. El fenómeno de la migración en tránsito, el incremento del número de personas solicitantes de protección internacional, los efectos del cambio climático y su repercusión en los desplazamientos, y el mayor número de personas menores y jóvenes sin referentes familiares, van dando forma a una nueva realidad que nos plantea nuevos e ineludibles retos.

Estos mismos retos son los que nos llevan a la segunda cuestión: la necesidad, transcurridos casi veinte años, de actualizar este órgano consultivo. Todo ello tras un prolongado y contrastado proceso de reflexión en el marco de la evaluación del V Plan de actuación en el ámbito de la Ciudadanía, Interculturalidad e Inmigración (2018-2020) y elaboración del VI Plan Intercultural de Ciudadanía, Inmigración y Asilo (2022-2025), ambos del Gobierno Vasco.

Los principales cambios en relación al Foro anterior, con el que obviamente hay una línea de continuidad, se concretan en:

1. Se amplía el número de comisiones con la creación de la Comisión de Trabajo de Asilo y la Comisión de Trabajo de Euskera y Diversidad Lingüística.

2. Se constituye una Secretaría de Coordinación con el fin de agilizar y regenerar el trabajo de Foro, armonizar su funcionamiento (haciendo énfasis en la coordinación y comunicación entre los diferentes órganos operativos), y divulgar las actividades realizadas.

3. Se simplifica el proceso de entrada a las Comisiones de Trabajo con el objetivo de contar con una mayor participación y representación de los agentes y entidades sociales que trabajan en el ámbito de las migraciones y la diversidad.

Así mismo, se ha considerado la importancia fundamental que tiene la difusión de la labor que realiza el Foro. A pesar de los años transcurridos y fuera de un sector muy concreto, el Foro sigue siendo un desconocido para gran parte de la sociedad vasca. En este sentido, se ha dado comienzo a la creación de una web que permita la difusión y comunicación de las actividades y trabajos desarrollados por cada una de las comisiones del Foro. Así mismo, se ha diseñado un logo propio y original para el Foro. Esta labor divulgativa hacia fuera redundará además hacia dentro en la medida en que fortalecerá la propia identidad del Foro.

# TRABAJO DE LAS COMISIONES

## Comisión de Acogida Y Convivencia

Composición: Lidia Barrutia (técnica de la Dirección), Asociación GOIZTIRI Elkartea, Harresiak Apurtuz-ACCEM, Emigrados sin Fronteras, CEAR Euskadi, Cruz Roja, FEDAIB, Kolore Guztiak (coordinación), Ayuntamiento de Bilbao.

Reuniones: 11 de febrero, 11 de marzo, 9 de mayo, 12 de septiembre, 24 de octubre, 10 de noviembre.

Trabajo desarrollado:

1. Tarea de revisar, matizar y complementar el documento "Modelo Vasco de Acogida" elaborado por una comisión coordinada por BEGIRUNE Fundazioa. Se cuenta con un documento definitivo (**Medida 4.1.2 del VI Plan Intercultural de Ciudadanía, Inmigración y Asilo**).

2. Desde la comisión se solicitó a BILTZEN e Ikuspegi que las Jornadas de Inmigración de octubre del 2022 recogiesen la cuestión de la acogida. Realizada la petición, la comisión colaboró en la elaboración del programa de las Jornadas proponiendo tanto posibles personas para las ponencias y mesas como diferentes metodologías para el desarrollo del evento (para su consulta contactar con Lidia Barrutia: l-barrutia@euskadi.eus )

3. Las Jornadas han tenido lugar el 20 y 21 de octubre bajo el título "Hacia la Acogida y la Inclusión". Puede consultarse el programa en: https://www.ikuspegi.eus/documentos/material_jdas/programa_jdas2022.pdf#page=2

4. Preparación y organización de una jornada interna de acogida y sus dimensiones comunitarias a través de diferentes experiencias. El 20 de junio en Orduña se llevó a cabo la II Jornada Técnica de Experiencias de Acogida Comunitarias con la participación de ZAPALAN (Orduña), EKIN EMAKUMEAK (Arrasate), AGHARAS (Barakaldo) y DARKUM (Donostia-San Sebastián).

   La relatoría y aprendizajes de la Jornada están recogidos en un texto (para su consulta contactar con Lidia Barrutia: l-barrutia@euskadi.eus ).

## Comisión de Garantías Jurídicas

Composición: Unai Aspuru (técnico de la Dirección), CITE Bizkaia (CCOO), Asociación Profesionales Residentes en el País Vasco, Asociación Indoamerika Herria, SOS Arrazakeria (coordinación), BIDEA EGINEZ, Cruz Roja, Ayuntamiento de Bilbao, Biltzen.

Reuniones: 16 de febrero, 13 de abril, 15 de junio, 16 de septiembre, 8 de noviembre.

Trabajo desarrollado:

1. A partir de la problemática existente en algunos centros escolares para la matriculación de alumnado de origen extranjero por no encontrarse empadronado se ha realizado un informe al respecto (Para su consulta contactar con Unai Aspuru: u-aspuru@euskadi.eus ). En el proceso de elaboración se ha invitado a una de las sesiones a Ikuspegi que en este momento está finalizando un estudio sobre la situación del padrón y la población de origen extranjero en Euskadi.
2. De cara al ejercicio 2023 la comisión se plantea dos líneas de trabajo:
    a. A partir de la preocupación general de las comisiones del Foro, se realizará un informe sobre la problemática que representa el que la población de origen extranjero vea dificultada la apertura de una cuenta bancaria (**Medida 4.3.7.5 del VI Plan Intercultural de Ciudadanía, Inmigración y Asilo**).
    b. Informe acerca de las becas, tanto universitarias como no universitarias, y la normativa de las mismas (especialmente los requisitos) en la medida en que pueden vulnerar derechos de personas de origen extranjero.

Estado de la comisión:

Se han incorporado a la comisión Cruz Roja, Bidea Eginez y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

## Comisión de Participación, Sensibilización y Cultura

Composición: Aitor Eguinoa (técnico de la Dirección), Ayuntamiento de Bilbao, Emigrados sin Fronteras, Cruz Roja, JATORKIN (coordinación), Biltzen, Clara Campoamor, ACCEM, TOPAGUNEA, Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, Diputación Foral de Álava.

Reuniones: 22 de febrero, 3 de mayo, 29 de junio, 13 de septiembre, 22 de octubre.

Trabajo desarrollado:

1. Desde el 2021 la comisión ha desarrollado un trabajo de recopilación de los recursos existentes para el aprendizaje del euskera en los tres territorios de la Comunidad Autónoma Vasca. Los materiales se han finalizado y colgado en la web de Biltzen para su difusión. Se pueden consultar en: https://labur.eus/mJimB (euskara) y https://labur.eus/mJimB (castellano).
2. Se detecta la necesidad de conocer la situación actual del tejido asociativo de personas de origen extranjero en Euskadi, dado que los últimos estudios e investigaciones son del 2010. Por ello desde la comisión se realiza y eleva la propuesta de llevar a cabo una investigación sobre el asociacionismo de origen extranjero en Euskadi (agentes que operan en los tres territorios, situación de las asociaciones, ámbitos de trabajo, fortalezas y debilidades, etc.).

   Esta posible investigación contaría como punto de partida con el directorio/catálogo sobre las asociaciones de personas de origen extranjero que trabajan en el ámbito de la diversidad y la convivencia que ha realizado Biltzen.

3. Ante las elecciones municipales y forales que tendrán lugar en 2023 en Euskadi la Comisión ha elaborado un documento explicativo del proceso a seguir para poder ejercer el voto en el caso de aquellas personas de origen extranjero procedentes de países de la UE o de países extracomunitarios con acuerdo. Este documento ha sido traducido a cinco idiomas. Se trata por tanto de un mecanismo de fortalecimiento de participación política de las personas de origen extranjero (**Medida 4.3.7.6 del VI Plan Intercultural de Ciudadanía, Inmigración y Asilo**).

   Para la elaboración de este trabajo se ha trabajado conjuntamente con EUDEL. Además de consensuar el contenido del documento, se trata de llegar a todos los municipios vascos y que todos puedan difundir la misma información. Para ello se ha realizado una reunión de trabajo con Alma Moro (Responsable de comunicación), Eukene de Miguel (Técnica de Igualdad) y Dorleta Goiburu (Responsable de Servicios Sociales).

4. Así mismo se ha realizado una rueda de prensa para dar a conocer la campaña el día 7 de diciembre.
   Se considera la necesidad de contar con un mayor conocimiento de los recursos artísticos y culturales de las personas de origen extranjero en Euskadi. Como primer paso se abre un espacio en el *drive* de la comisión con el objetivo de generar una guía de recursos artísticos.

Estado de la comisión:

Se traslada a la Dirección la necesidad de contar con alguna persona representante del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

## Comisión de Trabajo

Composición: Unai Aspuru (Técnico de la Dirección), Cruz Roja Araba (coordinación), CITE (CCOO), Asociación Indoamerika Herria, Asociación Profesionales Residentes en el País Vasco, Asociación Afroamericana, Confebask, UGT, Prestaturik, SARTU-Araba, Fundación Gizakia, Biltzen, Lanbide.

Reuniones: 17 de febrero, 5 de abril, 2 de junio (extraordinaria), 28 de junio, 15 de septiembre (extraordinaria), 4 de octubre, 3 de noviembre (extraordinaria) y 7 de noviembre (extraordinaria).

Trabajo desarrollado:

1. A partir de las preocupaciones abiertas en la comisión ante la aprobación de la Ley orgánica 3/2020 de 31 de marzo de ordenación e integración de la formación profesional se realiza un documento propositivo para transmitir la situación que para las personas migradas puede suponer esta nueva ley. En términos generales se traslada, a partir de los cambios en la organización y gestión de la formación para el empleo, la importancia de la atención a las personas migradas desde una clave de integralidad en lo que respecta a los itinerarios formativos-laborales.
   (Para su consulta contactar con Unai Aspuru: u-aspuru@euskadi.eus ).
2. A partir del Acuerdo de 31/12/2017 del Consejo Territorial de Servicios Sociales y del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia que establece normas y plazos para la profesionalización de los servicios de cuidado que se integran en el sistema de la dependencia y los efectos del mismo en diferentes ámbitos, la comisión elabora un documento donde se recogen propuestas concretas para la mejora de la empleabilidad y las condiciones de trabajo de las personas de origen extranjero que desempeñan actividad laboral en el sector del empleo del hogar (**Medida 4.1.4.5 del VI Plan Intercultural de Ciudadanía, Inmigración y Asilo**) (Para la consulta del documento contactar con Unai Aspuru: u-aspuru@euskadi.eus ).

Estado de la Comisión: se ha incorporado la asociación Bidez-bide.

## Comisión de Educación

Composición: Aitor Eguinoa (técnico de la Dirección), JATORKIN, ZEHAR, Biltzen, SOS Arrazakeria, Egintza, Departamento de Educación de Gobierno Vasco, Matiz.

Reuniones: 15 de febrero, 8 de abril, 23 de junio, 15 de septiembre, 27 de octubre.

Trabajo desarrollado:

1. Elaboración por parte de la Comisión, en contraste con el Departamento de Educación y a partir de la información de la web de Gobierno Vasco, de trípticos informativos sobre el sistema educativo. El objetivo es proporcionar a las familias una información veraz, específica y en un lenguaje cercano. Se incorpora además una perspectiva transnacional en el sentido de que está información se quiere trasladar a origen de tal manera que las personas puedan contar con ella desde los inicios. En proceso de validación y diseño.
2. Se solicita la presencia de alguien de la Dirección de Innovación Educativa para presentar la experiencia piloto del programa Eusle: cómo ha sido su evaluación, a qué centros se ha ampliado, y en relación con lo más actual, si se está utilizando para escolarizar a las niñas y niños refugiados procedentes de Ucrania. El 23 de junio desde el Departamento de Educación se presenta a la Comisión la experiencia piloto EUSLE dando respuesta a todas las preguntas planteadas. Se elabora un breve informe sobre la jornada (Para su consulta: contactar con Aitor Eguinoa: a-eguinoa@euskadi.eus ).
3. Se detecta la necesidad de contar con una perspectiva aterrizada y "desde abajo" en el ámbito de las relaciones que se dan entre las familias y la comunidad escolar (centros, AMPAS, familias "autóctonas", etc.) (**Medida 4.3.1.1 del VI Plan Intercultural de Ciudadanía, Inmigración y Asilo**). Para ello:
    a. Se elabora un cuestionario para las familias de origen extranjero que las entidades que integran la comisión difundirán entre sus contactos con el objetivo de tener una muestra lo más amplia presente y conocer la realidad en torno a esta cuestión (Para su consulta contactar con Aitor Eguinoa: a-eguinoa@euskadi.eus ).
    b. Se cursa una invitación a Elkarrekin, cooperativa de investigación y acción social, que desarrolla el proyecto "Ongi Etorri Eskolara" un proyecto que trabaja la interculturalidad en la escuela de forma transversal: con alumnado, profesorado, familias y ámbito comunitario. Se reúnen con la comisión el 17 de octubre compartiendo toda la información relativa al proyecto: estructura, contenidos, metodologías, resultados, etc.
4. Se elabora un pequeño texto que se remite a las asociaciones de madres y padres más representativas (que en algún momento han formado parte de la Comisión) para intentar volver a contar con su participación.

Estado de la Comisión:

Se incorpora a partir de septiembre la Asociación Matiz.

Dejan de acudir: STEILAS, FAPACNE (Asociación de madres y Padres de la escuela Concertada en Alava), BAIKABA (Asociación de Madres y Padres de la Escuela Pública de Gipuzkoa), Denon Eskola Alava.

Se da de baja Berritzegune Nagusia.

## Comisión de Vivienda y Recursos Sociales

Composición: Lidia Barrutia (técnica de la Dirección), Biltzen, Sartu, ACCEM (coordinación), Kolore Guztiak, Goiztiri, Viceconsejería de Vivienda.

Reuniones: 3 de marzo, 17 de mayo, 24 de junio, 16 de septiembre, 14 de noviembre.

Trabajo desarrollado:

1. El 12 de abril la Comisión de reúne con Pedro Jauregui, Viceconsejero de Vivienda del Gobierno Vasco, para trasladar información acerca del Foro, la Comisión de Vivienda y Recursos Sociales y el trabajo que ésta desarrolla.
2. A partir de esta reunión la Comisión es invitada por el Observatorio Vasco de la Vivienda en el marco del proceso del Pacto Social por la Vivienda 2022-2036 para colaborar y participar. Esto se ha concretado en:
    a. Participación en la reunión del 27 de abril en la que se traslada a la Comisión un documento para realizar propuestas al futuro Pacto. Se trabaja en la Comisión dicho documento y se entrega al Observatorio el 20 de mayo.
    b. Invitación a la Comisión a cumplimentar vía on-line un breve documento acerca del conocimiento que se tiene del Observatorio y del interés en participar/colaborar activamente en el mismo. Se realiza el 7 de octubre.
    c. Invitación de la Viceconsejería de Vivienda a un acto que se realiza el 30 de noviembre para que la Comisión se adhiera al Pacto Social por la Vivienda.
3. En la Comisión se valora la posibilidad de trabajar sobre el nuevo directorio de recursos y centros sociales que la Dirección se Servicios Sociales del Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales está elaborando, con el fin de buscar una mayor aplicabilidad en el ámbito de las migraciones en colaboración Biltzen. Este directorio está en este momento en proceso de reelaboración con lo que será una línea de trabajo que continuará durante el 2023.
4. Se revisa la página web de Etxebide (https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-etxebide/es/ ) y Alokabide (https://www.alokabide.euskadi.eus/gaztelagun/test/ ). Se examina el test que en el programa Gaztelagun (ayuda directa al pago del alquiler para favorecer la emancipación de jóvenes entre 18 y 35 años) hay en relación a los requisitos para solicitar ayuda para el pago de alquiler. Se valora y decide solicitar la traducción al francés, inglés y árabe.
5. Se elabora un mail tipo para conocer la labor que en el tercer sector se está realizando en materia de vivienda. Este conocimiento de la realidad es el primer paso para aunar sinergias y enfocarse en la búsqueda conjunta de soluciones. El mail será remitido tanto por parte de la Secretaría Técnica del Foro como por las propias entidades sociales que conforman la Comisión.
6. De cara al ejercicio próximo, la Comisión se plantea elaborar un tríptico con la información relativa al acceso a la vivienda en Euskadi. Se tomará como referencia el tríptico realizado por el Departamento de Salud de Gobierno Vasco (**Medida 4.3.6.3 del VI Plan Intercultural de Ciudadanía, Inmigración y Asilo**).

Estado de la Comisión:

Se valora la invitación a formar parte de esta comisión de las siguientes entidades: Asociación Solidaridad Vasco Ecuatoriana- ASVE, Tresnak Social Global de Alava y CARITAS.

## Comisión de igualdad

Composición: Txetxu Franco (técnico de la Dirección), Bidez Bide (coordinación), harresiak Apurtuz, Haurralde, Matiz, Clara Campoamor, Jatorkin, Emigrados sin Fronteras, FEDAIB, Cruz Roja, Zubietxe, Malen Etxea, Biltzen, Ayuntamiento de Bilbao, Emakunde, Diputación Foral de Bizkaia.

Reuniones: 21 de febrero, 5 de mayo, 30 de junio, 29 de septiembre, 3 de noviembre.

Trabajo desarrollado:

1. Se elabora un informe sobre el impacto de la COVID-19 en mujeres migradas (para su consulta: jl-francolamikiz@euskadi.eus ).

2. Se retoma la posibilidad de colaboración de la comisión con Emakunde en la elaboración que en su día iban a llevar a cabo de un protocolo para los matrimonios forzados. Para ello se escribe una carta a Emakunde. Esta carta ha supuesto retomar el contacto con Emakunde y que se incorpore como miembro a la comisión.

3. Emakunde informa de que pretende realizar un documento sencillo y de fácil lectura en el ámbito de los matrimonios forzados, infantiles, precoces y concertados que ofrezca indicadores de detección para las entidades sociales. Se solicita la colaboración y el contraste de la comisión en este documento (**Medida 4.1.4.4 del VI Plan Intercultural de Ciudadanía, Inmigración y Asilo**).

4. Se trabaja en la redacción de un breve documento dirigido a la Federación del Banco de Alimentos. A partir de las necesidades detectadas por la comisión en lo que a los productos de higiene menstrual se refiere, se traslada a la Federación la posibilidad de incidir en las campañas de sensibilización y recogida para visibilizar la importancia que estos productos tienen.

5. Se plantea y trabaja en el diseño de una formación en género e interseccionalidad dirigido a las personas y entidades miembro del resto de las comisiones del Foro. En este momento se está pendiente de una reunión con la Técnica de Igualdad del Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales para ver la viabilidad de la propuesta.

## Comisión de Sanidad

Composición: Patxi de la Fuente (técnico de la Dirección), Haurralde (coordinación), Nos Unimos, Cruz Roja, Zehar Errefuxiatuekin, Asociación Colombia-Euskadi, ANESVAD, Médicos del Mundo, Departamento de Salud del Gobierno Vasco, Ayuntamiento de Bilbao.

Reuniones: 16 de febrero, 5 de abril, 7 de junio, 27 de septiembre y 25 de octubre.

Trabajo desarrollado:

1. Ante la preocupación por las dificultades en el acceso de las personas extranjeras a la asistencia sanitaria, se diseña una formación dirigida al personal administrativo de los servicios de atención primaria, hospitalaria y urgencias, así como a las Jefaturas de Unidades de Atención Primaria (JUAPS) (**Medida 4.3.5.3 del VI Plan Intercultural de Ciudadanía, Inmigración y Asilo**). Esta formación se ofrecerá también a personas y entidades miembro de las comisiones.

2. Tema de análisis: salud mental en relación a las personas migradas, partiendo de las situaciones que han emergido durante la pandemia. Tras conocer el anuncio de la Consejería de Salud del diseño de una nueva estrategia de abordaje de la Salud Mental, acorde con las necesidades de la era post-pandemia, el representante del Departamento de Salud se compromete a proponer a la Comisión Asesora de Salud Mental que ofrezca un espacio a la comisión del Foro para que traslade su visión y preocupaciones.
   La comisión ha trabajado y elaborado un documento breve bajo el título “Claves de diagnóstico y abordaje en salud mental para la población migrante” que presenta en la reunión del 3 de noviembre de la Comisión Asesora de Salud Mental. Se ha establecido un canal de comunicación y trabajo importante que se valora positivamente y que se espera tenga continuidad en el futuro.

3. Red Migracovid: se ha ido informando de la actividad de la red y en la reunión de julio se presentó la memoria general de la actividad desarrollada entre julio del 2020 y abril 2022. Se valora como una experiencia muy positiva de trabajo en red entre el Departamento de Salud, Osakidetza, la Dirección de Migración y Asilo y Biltzen, y las asociaciones.

4. Se solicita información sobre el acceso de las personas en situación irregular a los Espacios Socio-sanitarios de Recuperación. Se pedirá a las Diputaciones Forales que atiendan esta necesidad.

5. Seguimiento y contraste de las siguientes acciones del Departamento de Salud:

   a. Se están emitiendo tarjetas sanitarias (TIS) a las personas en situación irregular que están empadronadas. Anteriormente se les otorgaba un reconocimiento de atención recogido en una carta. Se han ido enviando a los domicilios las tarjetas correspondientes a las personas que obtuvieron el reconocimiento en 2021.

   b. El departamento de Salud está elaborando una Instrucción para establecer el acceso a la asistencia sanitaria de las personas extranjeras. El enfoque es el de disminuir los requisitos; por ejemplo, si no se puede demostrar el empadronamiento, podría valer la matriculación de los hijos en un centro escolar o las visitas periódicas a una ONG.

c. Se traslada la preocupación por la exclusión del aseguramiento sanitario gratuito de ascendientes reagrupados de personas de origen extranjero. El Departamento ha hecho un esfuerzo, pero se considera que los umbrales de ingresos son muy bajos (**Medida 4.3.5.2 del VI Plan Intercultural de Ciudadanía, Inmigración y Asilo**).